



LEHEN HEZKUNTZA

2. ZIKLOA

AMARA BERRI **SISTEMA**

GLOBALIZAZIOA SISTEMA IREKI BATEN BARRUKO BIZI BILAKABIDE GISA
LA GLOBALIZACIÓN COMO PROCESO VITAL DENTRO DE UN SISTEMA ABIERTO

Dokumentu honen bidez eskolako ezaugarri nagusiak jakitera eman nahi ditugu, honetarako oinarritzko bi dokumentu aipatuko ditugu: **Ikastetxeko Hezkuntza Proiektua (IHP)** eta **Ikastetxeko curriculum proiektua (ICP)**.

IHPa gure oinarritzko dokumentua da eta bertan gure hezkuntza asmoa, lortu nahi duguna, jasota dago.

Guk dugun ikaslearen kontzepzioa da gure **IHP**aren ardatza:

- Ikasle bakoitza izaki globala da, beraz bere garapenaren esparru guztiak interesatzen zaizkigu: nortasuna, harreman sozialak eta arloekin lotutako ikasketak. **GURE XEDEA UMEAREN GARAPEN ARMONIKO ETA GLOBALA DA**. Beraz, eskolako helburu orokorrak biziki lotuta daude garapen hiru esparru hauekin.
- Izaki bakoitza norberaren kontzeptu eskema eta emozio-egoeratik abiatzen da eta bere ahalmena du.
- Badago berezitasun bat haur guztiak batzen dituen: jolaserako interesa. Jolasaren bidez helduen mundua imitatzen dute eta imitazioz ikasten dute.

Printzipio metodologikoak ikaslearen kontzepzioarekin guztiz lotuta daude eta hauek gure eguneroko eginbeharra bideratzen dute:

- **INDIBIDUALIZAZIOA**: Eskolak, ikasle bakoitzak dituen ahalmena eta egoera kontuan harturik, bere mailan eta erritmoan lan egiteko aukera emango dion programa ahalbideratu behar du.
- **SOZIALIZAZIOA**: Elkarreraginak aurrera jotzen eta gure eskemak aldatzen laguntzen digu; honengatik, guk proposatzen ditugun aktibitate guztiak testuinguru sozialak dira.
- **AKTIBITATEA**: Gure helburua ikasle gogotsuak, aurrea hartzen dutenak eta jakin-mina dutenak lortzea da. "Ikasleak bere kasa egin dezakeena, ez dezala irakasleak egin"
- **SORMENA**: gizaki orok duen gaitasuna da. Eremu guztietan sustatzen dugu, pertsona bakoitzak barruan daramana kanporatu eta bere berezitasunaz jabetzeko aukera izan dezan.
- **ASKATASUNA**: Besteen eskubidea errespetatuz, bakoitzak pentsatzeko, adierazteko, eta aukeratzeko duen eskubidea da. Muga bakarra besteen eskubidea da, honi "muga soziala" deitzen diogu.
-

Ikastetxeko curriculum proiektua (ICP) dokumentuaren bitartez aurreko ideiak eguneroko praktikan gauzatzen dira. Ikasleari buruz dugun ikuskerak, dena antolatzeko, programatzeko, esku hartzeko eta jarraipena egiteko era zehatz batera eramaten gaitu. Ondoren datozen metodologia ezaugarriek, ikuskera eta hezkuntza-praktikaren arteko koherentzia adierazten dute.

- **Antolamoldea** bera esku-harmenerako oinarritzko estrategia da.

- Osagarri eta egonkorak diren testuinguru sozialen bidez programatzen dugu, hau da, arloak elkar batzen diren bizi ekintzen bidez. Aktibitate hauei **Testuinguru Sozial, Egonkor eta Osagarriak** deitzen diegu. Sozialak, umeen arteko harremanak sustatzen dituztelako; egonkorak, ziklo osoan mantentzen direlako; osagarriak, aktibitateen baturak curriculum osatzen duelako.
- Aktibitate guztiek beraien baitan edo ematen zaien irteeretan **zertarako** edo **helburua** dute. Lanak irteera desberdinak izan ditzake, gela barruan besteen aurrean aurkeztu,... edo eskola irrati bitartez emititu edo eskola prentsan argitaratu. Baliabide hauen bitartez ikasleek Informazio eta Komunikaziorako Teknologia Berrietan jarduten dute, testu prozesadoreak, Internet, eskanerra, argazki kamera digitala, bideo kamera, bideoen edizioa....
- **Ziklo programen** bitartez egiten dugu lana. Taldeetan adin desberdineko ikasleak nahasten dira.
- **Irakasle desberdinek** lan egiten dute ikasle talde bakoitzarekin.
- Aktibitate bakoitzak bere **lan metodo** idatzia du. Ikasleek lana burutu ahal izateko, lan metodoan adierazten diren urratsak jarraitu behar dituzte.
- **Mediateka** edo baliabide gunea lanak burutzeko oinarrizko informazio-entorbidea da.
- **Kritika eraikitzaileak** aurreratzeko baliabidetzat jotzen dugu.
- **Aniztasunaren** aldekoak gara. Daukagun programari ikasle bakoitzak bere erritmo eta mailaren arabera heldu diezaioke. Ikasketa prozesua ez da adinarengatik geldiarazten.
- **Ezberdintasuna** aberasgarria da eta ez diskriminatzeko arrazoa. Denok ezberdinak gara.

Ikastetxeak badu Arreta Berezikiko Zerbitzua. Honek ikasketetan behar bereziak dituzten ikasleei, gaitasun ezagatik zein gaitasun apartagatik, erantzuna ematen die.

2. zikloko beste zenbait ezaugarri:

- Irrati saioa egiten dute.
- Entzumena eta ulermena lantzeko, besteak beste, irratiaren bidez lantzen da.
- Astero Eskola Prentsa egiten da (Liburutegian). Ziklo honetako ikasleek, lanak aukeratu, idatzi eta maketatuz, asteko eskola-prentsaren argitalpena bermatzen dute.

HIZKUNTZA (Euskara)

Hizkuntza arloan, lau gune edo testuinguru dituen bi departamentu osagarritan lan egiten da (**Hitz Jario** eta **Hitz eta Pitz**).

Departamentuko oinarrizko helburua hau da: gure ikasleriak testu desberdinen (narratiboak, deskriptiboak, poetikoak,...) ulermena eta ekoizpena ahoz zein idatziz hobetzea.

Nahi duguna da beraien hizkuntzan sakontzen joatea eta, honek ematen dien aukera ezagututa, gaitasun komunikatiboa handiagotzea.

Hitzaldiak. Gune honetan gizarte eta naturari dagozkion testuak lantzen dira.

Jarduera honetako helburua ideiak erlazionatzen eta oinarrizkoak ez hain oinarrizkoak direnengandik bereizten ikastea da.

Jardueraren garapena heldutasunaren arabera dago. Bi maila bereizten ditugu. Lehenengo mailan beraien hitzekin testuan agertzen diren ideia ezberdinak adierazten dituzte. Bigarren mailan paragrafoa aztertzen dute, ideia komunak erlazionatu, oinarrizkoak direnak ez hain oinarrizkoengandik berezitu eta sintesi lanean hasi. Hitzaldia buruz ikasteko, baliogarria egiten zaien gidoia burutzen dute, ondoren gelakideen aurrean hitzaldia aurkeztuko dute, eta balorazioa jasoko dute.

Denbora-pasak. Gune honetako helburua jokoan bidez hiztegia aberastea, barneratzea eta menperatzeaz gain, arau ortografikoak ikastea eta erabiltzea da.

Helburu bezala nahi duguna da ikasleak jokoan bidez (gurutzegramak, hizki zopak, hieroglifikoak, hitzen kiniela,...) hizkuntzaren aspektu hauek barneratuz joatea: hitzen definizioak, arlo semantikoak, hizkuntza sinbolikoa, sinonimia-antonimia, hitz eratorriak eta familiakoak eta arau ortografikoak.

Dramatizazioa. Testuinguru honetan lana taldean egiten da eta ipuin bat antzerki bihurtzean datza; hau da, testu narratibotik antzerki estuktura batera pasatu. Horretarako gaiaren koherentzia mantenduz, narratutako zatia laburtu eta elkarrizketak gehitzen dituzte. Lortutako antzerki testua entsaiatzen dute, ahots erregistro egokia aukeratuz, adierazkortasuna eman arte. Ondoren emititu egingo da, beraien kideen balorazioa jasoz.

Jarduera honetako helburuak honako hau lortzeko bideratuak daude:

- Bi testu hauek (ipaina eta antzerkia) bereizten ikasi.
- Irakur adierazpen ona lortu.
- Taldean lan egiten ikasi, harreman sozialerako jarrerak sustatuz (lankidetzeta, inplikazioa, tolerantzia, kritika eraikitzailea, ...).

Sail literarioa. Testuinguru hau bi departamentuetan dago, baina ikuspuntu ezberdin eta osagarriarekin: **ANALISIA** eta **SORMENA**.

ANALISIA gunean ipuin, olerki edo asmakizunen egitura aztertu, liburuen txostenak egin, laburpen teknika eta deskribapenaren aspektu aipagarrienak bereizten ikasten dute. SORMENA testuinguruan, aldiz, erreferentzi hauetaz baliatuz, eskutitzak, tarjeta postalak, kontakizunak, tokien eta pertsonen deskribapenak eta olerkia burutzen dituzte.

Jarduera guzti hauen helburuak:

- Literatur sentzibilitatea, irakurtzeko zaletasuna eta egileak kontatzen dutenaren jakinmina iratzartu.
- Beraien barne mundua transmititzen eta sormena garatzen lagunduko dien hizkuntza aberatsago batez hornitu.
- Idatzizko adierazpenen kalitatea, argitasun eta koherentzian aurrera egin dezaten berbategi eta sintesiaren errekurtsoak barneratzen ahalbideratu.

Gramatika gunea. Testuinguru hau ere bi departamentuetan dago, eduki eta diseinu osagarriekin.

Bertan idatzizko eta ahozko testuak erabiliz eta ordenagailua baliabide bezala erabiliz, eduki ezberdinak lantzen dira: ulermena, ipuinak ahoz birlaboratu, ortografia, hiztegia, eta orokorrean zikloari dagozkion eduki gramatikal guztiak.

Helburu bezala nahi duguna da beraien ahozko eta idatzizko adierazpena pixkanaka- pixkanaka kalitatez hobetzen joatea, beraiei hausnarketa linguistiko eremu bat helbideratuz. Gainera, autonomia indartzeko, hausnarketa gaitasunerako, atentzioa zentratzeko eta lana berrikusteko jardura aproposak diseinatuak daude.

GAZTELANIA

Departamentu honen helburu nagusia 2. Hizkuntza, gaztelera lantzea da. Ulermena eta adierazpena aho hizkuntzan zein idatzian garatu nahi ditugu. Departamentua lau kontestutan egituratua dago,

Ipuinak. Testuinguru honetan ipuinak irakurri, entzun eta sortzen dituzte.

- Ipuin irakurriak: Irakurketa bukatu ondoren, lan bat osatzen dute bibliografia eta argudioa jaso beharko dute. Agertzen diren pertsonaiak margotu beharko dute eta istorioari buruzko iritzi kritiko bat egingo da.
- Entzundako ipuinak: Entzunaldiaren ondoren, ulermena lantzeko, galdera sorta bat erantzun behar dute.
- Ipuin asmatuak: Mota desberdinekoak izan daitezke, hitz batzuen inguruan sortuak, marrazki batzuk oinarri gisa hartuz,... Kontaketaren egitura eta koherentzia lantzen saiatzen gara batik bat.

Solas eta irri. Liburu bat eta grabatutako zintetatik jasotzen dituzten txiste, aho-korapilo, igarkizun, bertso, abesti eta abarrekin egiten dute lan. Aukeratu duten testua kopia edo berridazten dute, ortografia eta testuaren antolaketa espazialari arreta berezia jarritz. Buruz ikasi ondoren, saioaren azken bost minutuetan, gelakideen aurrean aurkezten dute aho eta gorputz adierazpen ahalik eta egokiena erabiliz. Hamabostean behin, osatu duten materialarekin irratitik emateko programa bat prestatzen dute.

Antzerkia/irratia nobela. Antzeztuko duten testua aukeratu, eta lehen irakurketa egiten dute. Hitz ezezagunak azpimarratu, eta ondoren hiztegira joko dute hauen esanahiaren bila. Pertsonaien deskribapena egingo dute, hauek hobetu ezagutuz antzezpenean adierazpen egokiagoa eskaini ahal izateko. Horretarako kontuan hartuko dituzte bai pertsonaien nortasunaren ezaugarriak eta baita ere duten itxura eta kanpoko ezaugarriak. Irratitik emateko asmoa baldin badute efektu bereziak prestatu behar dituzte. Bestalde, lantzen ari diren emanaldia antzokian eskaintzekoa denean, dekoratua egingo dute, eta pertsonaia bakoitzaren janzkera eta karakterizazio egokiena pentsatu. Papera buruz ikasi ondoren, eskenatokira egingo dituzten sarrerak eta irteerak entsaiatu eta azkenik emanaldia eskainiko dute.

Prozesu guzti horretan helburuak ildo honetatik doaz: lexikoa eta egitura gramatikal berriak barneratzea, adierazpen kode eta baliabide berezituak erabiltzea, prestatzen ari diren emanaldiaren formatuaren arabera (antzerkia, irratia,...), gorputz adierazpena lantzea, pertsonaien deskribapena egiten ikasi eta talde lanean trebatzea

Sketchak. Gune gramatikalena da. Hizkuntza egitura berrien barnerapena errazteko asmoz dago diseinatua. Hemen barneratutako egiturak beste edozein testuingurutan erabili eta orokortzen joango dira. Horrelako aktibitateak egiten dituzte:

- Testu bateko hutsuneak bete (izenak, aditzak, adjektiboak,...) zentzua izan dezan.
- Pertsonaiak aukeratu eta deskribapenak egin lantzen ari diren hizkuntza egiturak erabiliz.

- Konparaketak egin antza handia duten bi marrazkien artean, lokailu aproposak txertatuz.

"**Sabías que**" testuinguruan txosten monografiko txikiak egiten dituzte gogokoak dituzten gaietara buruz. Ezagutza zabaltzeaz gain irakurtzerakoan ulermena lantzen dute.

KOMERTZIALA (Matematika)

Komertziala departamentua honako testuinguru hauek osatzen dute: lantegia, biltegiak, dendak eta banketxea. Hemen ikasleek dirua sartu, atera, maileguak eskatu,.. egiteko aukera dute.

Lehen aipatutako testuinguru guztien artean salerosketa harreman bat sortzen da, non lantegikoek biltegiak saltzen diete, hauek dendariei eta dendariei langileei.

Salerosketa prozesu honetan, eskaera orri bat prestatu, salneurriak kalkulatu, faktura egin, bueltak eman, maileguak eskatu eta abar egiten dute. Honekin batera diru sarrera, irteera eta saldoa kontularitza orrian jasotzen dute.

Departamentu honetako beste testuinguru batean, buruketak, zenbaketa eta neurriak lantzeko aktibitateak egiten dituzte.

Departamentu honen bidez honako helburu hauek bete nahi ditugu:

- Logika arrazoibide estrategiak eskuratu.
- (+,-,x, :) eragiketak erabiliz, buruzko kalkulurako estrategiak garatu.
- Eguneroko bizitzako egoerak ebazteko, matematikako eragiketak erabili.
- Merkataritzako, antolamenduko eta lan egoeretan sor daitezken buruketak ebazteko norberaren estrategiak landu eta erabili.
- Moneta sistema erraztasunez erabili.
- Eguneroko bizitzan, matematikaren balioaz ohartu.
- Salerosketa aktibitatea aurrera eramateko, elkarlanean aritu, bestearen presentzia kontuan hartuz.

ERAKUSKETA ETA ENKANTEA

Departamentu hau bestearen osagarria da eta lau testuinguruk osatzen dute: mertzeria, problemak, joko matematikoak eta diseinua.

Mertzeria. Testuinguru honetako helburu bat kalkulu aritmetikoa garatzea da. Honetarako "kontularitza praktikak" egiten dituzte, kalkulurako estrategiak eta eragiketak egiteko mekanismo ezberdinak erabiliz.

Luzera, masa eta edukiera neurriak lantzeko eta erabiltzeko, behaketa, neurri ezberdinen artean alderaketa eta estimazio estrategiak erabiltzen ditugu. Neurtutako tresna ezberdinak erabiliz, hau da, erregelak, zinta metrikoak, balantza eta pisuak, edukiera ezberdineko ontziak..... praktika zuzenak egiten dituzte lantzen diren kontzeptuak bereganatzeko. Era berean, kontestu honetan denbora neurriak eta dirua ere lantzen dira.

Jolas matematikoak. Eragiketa eta matematika joko ezberdinak erabiliz, logika matematikoa eta buruzko kalkulia garatzea da testuinguru honetako helburu nagusia. Buruzko kalkulia lantzeko eragiketak asmatu (batuketak, kenketak, biderketak eta zatiketak), eta emaitza buruz ateratzen dute.

Problema. Testuinguru honen helburua, problemen ulermena eta ebazpena da, prozeduraz eta emaitzaz hausnarketa bat eginez, baita estimazio eta kalkulurako estrategiak sortzea ere.

Helburu hau betetzeko, gero eta korapilatsuagoak diren buruketa ezberdinak ebazten dira. Problema hauetan, enuntziatuan erabilitako hizkuntza, datuak antolatzeko eta azaltzeko erak, prozedurak eta aukerak eta lortutako emaitzaren azterketa, azpimarratu nahi ditugu.

Diseinutegia. Testuinguru honetan geometria lantzen da. Prozedura ezberdinak (erabilera, dokumentazioa, azterketa, marrazketa eta maketen eraikuntza) erabiliz, beraien inguru hurbilean dituzten gorputz eta irudi geometrikoak ezagutu eta deskribatzen dituzte, beraien eta beste kideen lanak baloratuz, eta produkzioen bukaera estetikoa zainduz.

Bi eratako diseinuak egiten dituzte: bat planoan eta bestea bolumenean.

Gorputz eta irudi geometriko hauen elementuak (aurpegiak, erpinak, ertzak..) aztertzen dituzte eta azkenik kartulinaz edo balio gabeko materiala erabiliz, maketa bat egiten dute, gero gelakideen aurrean aurkezteko.

IKERKETA

Departamentu honetan ingurumena arloa nagusitzen da. Ikasleen ingurunearen ezaguera eta honen bidez naturarekiko eta pertsonetikiko begirunea sustatzea da gure helburua. Behaketa sistematikoa da batik bat erabiltzen dugun tresna; izan ere, ikasleek begiratzen, aztertzen, jakin-mina pizten, galderak egiten, ... ikasi behar dute. Ikasturtean zehar hiru txango egingo ditugu, gelan egiten den lanarekin biziki lotuta daudenak.

Departamentuan lau testuinguru ditugu:

Parkeak. Zuhaitz zehatz baten behaketa sistematikoa egiten dute, landaretza mundura hurbiltzeko. Behaketa eginda, informazio hori eta bibliografiak ematen duena alderatzen dituzte. Guretzako arrotzak diren izaki bizidun horiek nolakoak diren eta beren bizi funtzioak nola egiten dituzten aztertzen dute. Alderdi hauek lantzeko, zikloan zehar, hau da, 3. eta 4. maila artean, 2 irtenaldi egiten dituzte, urte batean lamerara eta hurrengoan Txatxarramendira. Bi urte hauetan gelan egindako lana osatzen dute. Honez gain, eta aniztasun handiagorekin eskolako zuhaitzen behaketa sistematikoa egiten dute. Irteera guztietan plano desberdinak, zuhaitz sailkapenak eta bibliografia egokia erabiltzen dituzte. Hazi, hosto, azal zatien banaketa egiten dute, ... eta argazkiak ere egiten dituzte. Lan hau guztia idatzitako txosten batean jasotzen dute.

Animaliak. Kontestu honetan, animalia munduan murgiltzen dira. Lehendabizi eta bideo bat ikusita, animalia espezie bat aztertzen da. Animalia honen berezitasunak kontuan izanda, goi sailkapen batean kokatzen da: narrastiak, ugaztunak, araknidoak, ... Dagokion sailkapenari buruz informazioa bibliografiatik jaso eta talde bereko beste espezie batzuk lantzen dira. Lan hau, kromoak eginez eta informazioa erantsiz, album batean mamitzen da. Bukatzeko lana aurkezten dute.

Hiria . Txoko honetako lana bi urtetan banatuta dago. Lehenengo urtean herritar mundura hurbiltzen dira eta honetarako herritik zehar ibilbide bat egiten dute. Irteera egin aurretik, egin beharreko ibilbidea eta ikusiko dituzten eraikinak eta toki esanguratsuak planoan kokatzen dituzte. Honekin batera, hiritar munduarekin zerikusia duten materialak eta gaiak (zerbitzuak, azpiegiturak, ...) prestatzen dituzte.

Kalean zehar doazenean, plano eta koaderno eskutan dituztelarik, datuak jaso eta argazkiak ateratzen dituzte. Arrantzaleen museoa ere bisitatzen dute.

Eskolara itzultzen direnean, kalean behatutakoa eta gelan aurretiaz landutakoa alderatzen dute eta ibilbidearen gidatxo bat burutzen dute.

Bigarren urtean Hiria eta Euskal Autonomia Erkidegoa lantzen dira, Euskadiko antolakuntzaz eta erakundeez ohartaraziz.

Meteorologia. Aktibitate honetan eguraldiaren behaketa egiten da eta neurketarako aparailu ezberdinak erabiltzen dira: termometroa, barometroa, haize orratza eta plubiometroa. Hauen bidez behatutako datuak grafiko ezberdinetan jasotzen dituzte eta honela grafikoak interpretatzen hasten dira. Honez gain, 3. mailakoek Uraren zikloa aztertzen dute eta 4. mailakoak Uraren erabilera eta Euskal Herriko klimatologiaz ohartzen dira.

Guzti hau lortzeko bideotxo bat eta idatzizko informazioa erabiltzen dute oinarri bezala.

Kontestu honetan, tenperatura aldaketa, ura eta airearekin lotura duten esperimenduak egiten dituzte. Hauek burutzeko ezarritako hainbat urrats

sistematikoki jarraitzen dituzte. Gure helburu nagusiak hauexek dira: honelako fenomenoen aurrean harridura, jakin-mina, behatzeko ahalmena sustatu eta esperimientuen ondorioak zehaztasunez azaltzea.

Txoko batetik beste batera pasatzeko gai orokor batzuk lantzen dira aste beteko epean. Hauek dira:

Giza gorputza: Elikadura eta osasuna, Paisaia eta garraioak, Makinak eta espazioa, eta Ekosistemak.

GORPUTZ HEZIKETA

Departamentu honetan garatu nahi ditugun helburuak hauexek dira: Joko arauen ezaguera eta talde ekintzen bidez JOLASAREN HASTAPENA BULTZATU; AUTOESTIMA ETA NORBERE EZAGUERA SENDOTU, oinarrizko trebetasunen praktikaren bidez (korrikaldiak, jauziak, jaurtiketa, jasotzea, ...); ELKARKIDETZA OHITURAK SORTU, norberaren eta besteen ekintzetan indartze positiboa erabiliz egoera eta espazio ezberdinetan, OREKA ETA KOORDINAKETA OROKORRA LANDU; GORPUTZ MUGIMENDUA ERRITMO EZBERDINETARA MOLDATU.

Helburu hauek guztiak aurrera eramateko ekintza multzo handi bat eskainiko diogu gure ikasleriarri, guztien edo gehienek gustuak betetzen saiatuz. Ekintza hauek lau multzotan banatuko ditugu:

Jolasak. Koordinaketa orokorra (lasterketa, norabide aldaketa, geldiketak, ...) garatu eta jokoaren arauak ezagutu eta errespetatzea da bere helburua.

Multzo honetan, talde dinamikari baiezko laguntza emango dion estrategia eta elkarketa ezberdinen erabilpenaren bidez, ezagutzen ditugun jolas mota guztiak sartuko ditugu.

Gorputz adierazpena. Multzo honen helburua, dantza erraz batzuen ikasketa, gorputz mugimenduak musikaren erritmora moldatzea, gorputz eskemaren garapena, taldekideen arteko dantzak eskatzen duen kontaktu fisikoaren onarpena lantzea, deshinibizioa, berezotasuna eta mugimenduen sormena bultzatzea.

Hemen biribilketak, euskal dantza erreza batzuk, eta koreografi berriak landuko ditugu.

Oinarrizko abileziak. Bere helburua bizkortasuna lantzea, eta gorputza menderatu eta ezagutzea (desplazamendu ezberdinak, igoketa, arrastak, lau hanketan, biraketak, ...).

Ekintza hau gimnasioan burutzen dugu, eta erabiltzen ditugun materialak, koltxonetak, suediar bankuak, koltxoneta lodiak, plintoa, jauzi-gailuak, etab...

Aurrekirolak. Multzo honek mugikor ezberdinak erabiliz, oinarrizko trebetasunak eta abilezien garapena du helburu, baita kirol jolasak ezagutu eta praktikatzea ere. Ziklo honetan saski baloia, futbola, esku baloia, esku pilota, beisbola... praktikatuko ditugu.

Osasuna: Osasun ohiturak landu (materiala prestatu, motxila prestatu) eta saio bukaeran garbiketarako tarte bat izatea (dutxatzea eta muda garbia jaztea). Jolasa edo jokua izango da oinarrizko metodologia.

ARTE HEZKUNTZA

PLASTIKA

Plastikako departamentuaren helburuak ziklo honetarako, hauek dira:

- Ahalik eta modu original eta pertsonalenean, forma, eta guneak konbinaturik, adierazpen artistikoa sustatu.
- Behaketa, pertzepzioa eta irudimena garatu.
- Zenbait teknika eta materialen erabiltze zuzena ezagutu eta landu.
- Egindakoarekin gozatzen lagundu eta sormena bultzatu.
- Elkarlana bultzatu.

Departamentuan teknika bidimentsionalak eta tridimentsionalak lantzen dira: marrazketa librea, naturalean, abstraktua, collage, oinarritzko eta bigarren mailako koloreak, grekak, eta abar...

MUSIKA

Hauek dira lortu nahi diren helburuak:

- Musika gure kulturaren oinarritzko elementutzat hartzea eta komunikatzeko modu unibertsal bat dela konturatzea (ideiak, sentimenduak, eta bizipenak jakinarazteko eta adierazteko).
- Kantatzeko eta dantzatzeko ezagupenetara hurbiltzea eta parte hartzea.
- Musika ekoizpenetan oinarritzko teknikak eta baliabideak erabiltzea (musika lenguaia).
- Musika mota ezberdinak ezagutzea eta ulertzea.
- Tresnak, ahotsa eta gorputza probatuz, adierazteko eta komunikatzeko erabiltzea, inprobisatzeko baliabideak erabiliz.
- Taldeko sorkuntzak egitea, gauzak proposatuz eta talde lana bultzatuz.
- Gure cultura eta beste herri batzuetako ondarea ezagutzea eta interesa piztea.
- Musika-ekoizpen errazak taldean egitea.
- Musikaren bidez komunikaziorako adierazpen-baliabideak ezagutu eta erabili.

Helburu horiek lortzeko edukiak:

- Gorputz adierazpena:
 - o Dantza librea.
 - o Munduko dantzak.
 - o Koreografiak.
 - o Dramatizazioa.
 - o Gorputz perkusioa.
- Ahotsa eta lenguaia:
 - o Kantutegia.
 - o Lenguaiaaren ezagutza.
 - o Entzunaldiak eta musika bidezko adierazpena.

- Musika tresnak:

- Musika tresnen bidezko adierazpena.
- Instrumentuen sailkapena.
- Tresnak sortu.

Guzti hau lortzeko erabiliko den metodologia ludikoa, dinamikoa, sormena eta irudimena bultzatzen duena, talde dinamikak landuz eta integratzailea izango da.

Musikaz disfrutatu eta zaletasuna sortuz!!!!